

## Transmisioa

Bideoan adierazi den bezala, garrantzitsua da gazteek jakitea herri honetan zer gertatu den. **La juventud tiene que conocer todo el sufrimiento que hemos padecido aquí, con el único objetivo de que no se vuelva a repetir.** Bakoitza ahal duen moduan kontatzen saiatuko da, baina naturaltasun osoz kontatu beharko genuke, eta batez ere, inongo gorrotorik transmititu gabe; **en definitiva, el odio genera más sufrimiento por lo que no debieramos de transmitirlo.** Gainera, kulturak tresna ezberdinak jarri dizkigu eskura, transmisio horretan lagundu dezaketenak.

Baina, batez ere, lekukotza eta istorio ugari ditugu horretarako. **Tenemos múltiples testimonios que nos ayudarán.** Norberak berea. Edo senitartekoren batena. Baita lagun batena ere. Eta agian, bizilagun batena ere bai. Esaterako, nire kasuan, aitonaren inguruan hitz egingo diet nire seme-alabei. Nor izan zen azalduko diet, eta bere ideia politikoeekin bat ez zetozenek erail zutela esango diet. **Les explicaré quién fue y que fue asesinado por quienes no coincidían con sus ideas políticas.** Baina ez hori bakarrik. **También tienen que saber que el hermano de una amiga fue secuestrado, y que en lugar de soltarlo, le dispararon hasta matarlo.** Beste lagun baten aita, aldiz, kotxe barruan zegoela tirokatu egin zutela esango diet. **Y también lo que le pasó al padre de otra amiga, que nada más arrancar el coche, explotó y murió allí. Y tantas otras historias.** Eta beste hainbat. Guztiak, inoiz gertatu behar ez ziren istorioak. Esperientzia gogorak, sufrimendu asko eragin dutenak, eta inork ez duelako eskubiderik beste pertsona bati bizitza kentzeko. Ez nire aitari, baina ezta Joxi Zabalarri, Mikel Uriberri, Juan Carlos García Goenari, eta aipatu ez arren, gogoan izan behar ditugun beste biktima guztiei.

ETAk armak utzi zituenetik 10 urte betetzen diren egun honetan, “Elkarbizitza eraikiz” lelopean bildu gara hemen. Eta elkarbizitzaz hitz egiten ari garenez, ETAk eragindako biktimez gain, biolentzia ezberdinek eragindako biktima guztiak izan behar ditugu gogoan. **Para construir convivencia, además de a las víctimas de ETA, tenemos que tener en cuenta a todas las víctimas de las diferentes violencias que hemos padecido en este país.** Estatuko segurtasun indarrek ere giza eskubideak urratu, eta biktimak eragin dituzte. Eta biktima guztiek egia jakiteko eskubidea dute, baita justizia eta aitortzarako ere. Eta azken horiek oraindik ez dute aitortzarik, eta ezinbestekoa da, ildo horretan aurrerapausoak lortzeko lan egitea. Guztion betebeharra da. Horrela ulertzen dut nik, elkarbizitza.

Izan ere, elkarbizitza eraiki ahal izateko ezinbestekoa da gertatu den guztia transmititzea, eta argi utzi behar dugu pertsona guztien giza eskubideak errespetatu behar ditugula. Pertsona guztien duintasuna. **Tenemos que respetar los derechos humanos de todas las personas, la dignidad de todas.**

Hori izan behar da funtsezko oinarria, abiapuntua. Helburuak lortzeko indarkeriak inoiz ez du izan, eta ez du izango justifikaziorik. **El uso de la violencia jamás ha tenido, ni tendrá, justificación alguna.**

Etorkizuna denon artean eraiki behar dugu. Gizartea anitza da, eta elkar errespetatu behar dugu. Elkarrizketaren bidez ezberdinen arteko elkarguneak bilatzen saiatu behar gara, zubiak eraikiz, inor atzean utzi gabe. Gaur gure artean ez dauden pertsona guzti horiei zor diegu.

**Tenemos que construir el futuro entre todos y todas. La sociedad es plural y debemos respetarnos mutuamente. A través del diálogo debemos intentar buscar puntos de encuentro entre diferentes, construyendo puentes, sin dejar a nadie atrás. Se lo debemos a todas aquellas personas que hoy no están entre nosotros y nosotras.**

Poliki goaz, baina, zailtasunak zailtasun, gero eta gehiago gara bide horrekin bat egiten dugunak. Eta lortuko dugu, ziur nago horretaz.